



# ORRI INFORMATIBOA



Igeldoko Herri Kontseilua - Itsas Aurre Kultur Etxea. Herriko plaza Z/G. IGELDO  
Tfona.: 943-31 30 30 e-posta: [infogeldo@euskalerrria.org](mailto:infogeldo@euskalerrria.org)



SAHARA EZ DA MAKURTZEN,  
GU ERE EZ  
EL SAHARA NO SE RINDE,  
NOSOTRAS Y NOSOTROS TAMPOCO

## AURKIBIDEA

Udazken jaiaren  
balorazioa /2

**Kontu Kontari:**  
Sahara /3-6

**Herrian ze berri?:**  
Kixmiren Gabonetako  
egitaraua, Gabon Gauean  
Kultur Etxean festa, Urte  
Zaharrearain brindisa, Ieltxo  
kultur taldearen aurkezpe-  
na, Joxe Mari Olasagasti  
aizkolaria Euskal Herriko  
txapelduna... /7-8

## Kaixo herrikide!!!

Neguairekin bat iritsi gara berriro ere zure etxeko epelera. Hala ere udazken garaiak eman digun uzta-  
ren aipamena egin beharrean gaude lehendabizi, eta aipatzekoa dugu urriaren 22 eta 23an herrian ospatu genuen Udazkeneko Jaia. Urtero bezala, programazioa antzekoa izan genuen eta baita jai giroa ere. Eguraldi triste xamarra izan zen arren, alaitasuna izan zen nagusi eta bai larunbatean zein igandean jende ugari bildu zen herriko plaza inguruan.

### **Antzerkiak, sekulako arrakasta**

Larunbatean aipatzekoa da gaueko antzerkiak izan zuen arrakasta, 141 lagun bildu baitziren estreinaldia zen antzezlanaren ikustera. Antzerki aurreko sardinada, azke-  
nean oilasko jana izan zen eta jende asko bildu zen. Antolatzaileen arabera, pena izan zen aurreikusitakoa baino jende gehia-



go inguratu zela eta ez zela guztientzako afaltzeko aukerarik izan.

### **Aurten ere, Patxi eta Martina Olasagasti anai-arrebak omenduak**

Igandea berriz, urtero bezala, azoka giroan hasi genuen; Igeldoko eta inguruko baserrietako uztak salerosteko aukera paregabea! Ganadu erakusketa ere izan zen azoka inguruan. Eta bazkaria, mundiala; goxoa eta giro jatorrean, nahiz eta iaz baino jende gutxiago inguratu. Bazkalostean txistek eta trikitixa doinuak izan ziren. Aurten ere, iaz bezala Amune baserriko anai-arrebak izan ziren omenduak: Patxi eta Martina Olasagasti. Bejondeizuela bioi! Iluntzeko afari-merienda osatzeko, taloak izan ziren, egunari amaiera "arin-arin" emateko! Hau da jan edana! ■



## “Gerrak badakigu heriotza eta kalteak dakartzala, baina gerrarik gabe ez dugu lortuko gure herrira itzultzea”

Saharari buruzko hitzaldia izan zen abenduaren 9an Igeldon. 6 sahararrek eta kooperazio programako 2 medikuk eman zuten hitzaldia. Historiaz, gatazka politikoaz, koope-

razioaz eta Marokoren azken erasoez aritu ziren; azken finean, Saharar herriak bizi duen egoera latzaren berri eman zuten, gerra, justizia egiteko bide bakarra ikusteraino.

“Gerra beste biderik ez dago. Badakigu heriotza eta kalteak dakartzala, baina gerrarik gabe ez dugu lortuko gure herrira itzultzea”. Hitz gogorrak, baina hori da, azken finean, Saharar herriaren errealitatea. Eta errealitate gogor horren berri emateko hitzaldia izan zen abenduaren 9an Igeldon. Bertan izan ziren 6 saharar: Mahafuda, Ladiba, Buha, Huauri, Ahmed eta Fatematu sahararren Gipuzkoako presidentea. Eta kooperazio programako bi mediku: Juan Carlos Izagirre igeldoarra eta Jose Luis Paulin.

Saharar herriak bizi duen gatazkak orain dela 35 urte du sorburua, Espainiako estatuak “traizioa egin” eta Maroko eta Mauritaniaren eskuetan utzi zuenetik. 1979an Mauritaniak alde egin zuen eta ordutik Marruekosek okupatua dago Sahara Mendebaldea. Eta azken urteetan, lehenengo munduko eta mendebaldeko herrietan gatazka hori nahiko ahaztua izan bada ere, azaroaren 8an El Aaiuneko kanpamenduetan Marokok egindako sarraskiak mahai gainean jarri du gaia berriz.



Fatematu, sahararren Gipuzkoako presidentea.



20 bat herritar gerturatu ziren Itsas Aurrera Saharari buruzko azalpenak entzutera. Zalantzak argitzeko aukera ere izan zuten.

### Gune okupatuan errepresioa nagusi

Saharar herria hiru gunetan banatua dago: gune okupatua, Sahara Mendebaldea dena, baliabide naturaletan aberatsa (Marokoko monarkiaren diktadurapean dago eta errepresioa da nagusi); gune libre, Sahara ekialdea dena, basamortua, Marokok jarritako minaz josia (Frente Polisarioaren esku dago eta nomadismotik, abeltzaintzatik bizi dira); eta errefuxiatuen kanpamenduak, Argeliako Tindouf herrian daude (erabateko basamortua da eta nazioarteko laguntzari esker bizi dira).

“Lurralde okupatueta bizi diren sahararrak bigarren mailako biztanleak dira, ez dute bertako baliabideak ustiatzeko aukerarik eta atxilotetak, biolazioak... hau da, eskubide urraketak eguneroko kontuak dira”, azaldu zuten. Eta gaineratu zuten marokiarra izatea ere ez dela “txoi-loa” eta erreferenduma egingo balitz, kolono askok Sahara libre izatearen alde bozkatuko luketeela.

“Marokiarra izatea ere ez da txoi-loa eta erreferenduma egingo balitz, kolono askok Sahara libre izatearen alde bozkatuko lukete, hobeto biziko lirakeela uste baitute”.

“Frente Polisarioaren konstituzioa Afrikako aurreratuenetako da eta Sahara aske batean baldintza hobetan biziko lirakeela pentsatzen dute kolono askok”.

El Aaiuneko erasoari dagokionean, El Aaiun, okupatutako guneko herri nagusienetakoa da eta handik km batzuetara kanpamendua sortu zuten sahararrek. Bertan biltzen hasi ziren oinarrizko eskubide horiek eskatzeko Marokori. Eta Marokok argi utzi zuen bere jarrera: guztia txikitu, hildakoak eragin, atxilotuak, desagertuak, biolazioak, lapurretak... Ikusitakoa ikusita, gerra beste biderik ez dute ikusten sahararrek. Eta bizi duten egoeraz

jabetzeko, kontuan hartzekoa da sahararrak dena 500.000ra iristen ez direla eta Marokon 30 milioi marroki inguru bizi direla.

### Ardura dutenei ardurak hartzeko eskatu

Saharar herria beti saiatu izan da bide demokratikotik gatazka konpontzen eta bide horri heltzeko, beharrezkoa ikusten dute eskubide urraketa horiek salatzea eta ardura dutenek ardurak hartzea. Horri dagokienean, argi utzi zuten Sahara oraindik Espaniar estatuaren administraziopean dagoela eta ardura nagusia berea dela. Eta ONUk 65ean Sahararen autodeterminaziorako erabaki zuen erreferenduma egin dadila eskatzen dute. Dena dela, badakite, eraso guzti horien aurrean, ez dela ezer egiten eta mendebaldeko agintari askok beste aldera begiratzen dutela interesak dituztelako. “Espainiak ostalaritza eta turismo aldetik interes ekonomiko handia dauka Marokon eta



Tea sahararren bizitzan oinarritzkoa da eta hitzaldian ere ez zuen hutsik egin.

Frantziak armak saltzen dizkio Marokori. Horrez gain, Marokok mehatxu egiten du drogei eta inmigrazioari dagokienean, kontrola kentzearekin”.

Egoera horren aurrean, beraien historiaren eta injustiziaren berri emanez lagundu egiten zaiela azaldu zuten eta eskerrak eman zituzten. Hausnarketarako bidea ere jarri zuten: “Mundua ez da injustoa gaizkile asko daudelako; injustizi baten aurrean gehienok ezer egiten ez dugulako baizik”.

**“Kooperazioa beharrezkoa da, baina ezin da ahaztu zein den helburua: Sahara libre izatea”**

Historia, gatazka politikoa eta Marokoren azken erasoei buruz hitz egiteaz gain, kooperazioaz ere aritu ziren hitzaldian. Aurrez esan bezala, Tindoufeko kanpamenduetan bizi

**“Espainiak ostalaritza eta turismo aldetik interes ekonomiko handia dauka Marokon eta Frantziak armak saltzen ditu bertan”.**

diren sahararrak nazioarteko laguntzari esker bizi direla azaldu zuten eta pixkanaka-pixkanaka, ahal duten neurrian, ingurua garatzen doazela eta hobeto bizi direla. “Kooperazio horri esker, guztiek ikasketak dituzte, lizentziatu ugari daude, oinarritzko elikagaiak dituzte, ur edangarria, osasun zerbitzuak eta materiala...” Kooperazio programako bi medikuek laguntza hori beharrezkoa dela azpimarratu zuten, baina ez dela ahaztu behar zein den beraien aldarrikapena: “Sahara libre izatea”. ■

**Historiari buruzko hainbat datu:**

- 1884**, “Protectorado español” sortzen da Saharan.
- 1936**, okupazio ofiziala.
- 1955**, ONUk deskolonizazioa hasteko eskatzen du.
- 1965**, ONUk autodeterminazio eskubidea aitortzen dio Saharari eta erreferenduma egiteko eskatzen du.
- 1973**, Frente Polisarioa sortzen da.
- 1975-11-2**, Juan Carlosek erreferenduma agintzen die.
- 1975-11-6**, Marokok “Martxa Berdea” hasi zuen, 350.000 zibil eta 25.000 militar Saharan sartuz.
- 1975-11-14**, Madrilen tripartittoa egin. Traizioa gauzatzen du Espainiak eta Sahara Maroko eta Mauritaniaren artean banatzen du. Hala, Espainiak bertako baliabideetatik aberasteko aukera du. Sahararrek ihes egiten dute basamortura, Argelia aldera. Tindouf herrian babestu ziren.
- 1976**, Tindoufeko kanpamentuak antolatzen dira.
- 1979**, Mauritaniak atzera egiten du, Sahara abandonatuz eta Marokok Sahara guztia okupatzen du.
- 1980**, Hassan IIak, Marokoko erregeak, “El Muro de la vergüenza” (2.000 km) eraiki zuen, munduko bigarren harresirik luzeena. Bi miloi mina baino gehiago jarri zituen inguruan.
- Sahara herria** hiru gunetan banatuta geratzen da: Tindoufeko kanpamenduak (erabateko basamortua, nazioarteko laguntzatik bizi dira); gune okupatua, Sahara Mendebaldea (Marrueko monarkiaren diktadurapean bizi dira, errepresioa da nagusi); eta gune librea, Sahara ekialdea (basamortua, Fronte Polisarioaren esku dago, nomadismotik bizi dira).
- 1991**, Marokok, Frente Polisarioak, ONUk eta OUAk akordio bat sinatzen dute, 1992an erreferenduma egiteko. Frente polisarioak tregua deklaritzen du.
- 2010-11-08**, Marruekoek gune okupatua, El Aaiuneko kanpamenduetan sarraskia eragin.

# Sahara igeldoarren begietatik



## 1.- Noiz joan zinen Saharara? zenbat aldiz egon zara?

**Juan Carlos Izagirre:** 2006an lehenengo aldiz eta ordutik 5 aldiz egon naiz.

**Edurne Zendoia:** 2008ko abenduko zubian joan nintzen Saharara, 10 egunetarako.

## 2.- Nolatan edo zertara joan zinen? Zeren bidez?

**J. C. I.:** Beste mediku batekin, 1996 geroztik indarrean dagoen proiektu baten barruan, Mundubat GKEk babes-tua. Helburua proiektuak markatzen zuen: osasun arloan formazioa eta asistentzia ematea, eta bertako Wilaya bateko (Auserd izenekoa) azpiegitua sanitario operatiboa mantentzen laguntzea. Eta baita ere, aukera paregabea iruditu zitzaidalako herri hau hobeto ezagutzeko.

**E. Z.:** Egun horietan, Saharako Musika eta Artearen X. Jaialdi Internazionala zegoen Auserd-en eta Euskal Herriko kulturaren eta musikaren ordezkari gisa joan nintzen, bertan kontzertu bat emateko. Euskal Fondoaren bidez joan nintzen. (Egia esan, festibalean baino lan gehiago egin genuen baratzean!)

## 3.- Ze iruditu zaizu esperientzia?

**J. C. I.:** Zoragarria. Lehenengo gauza pentsatzen duzuna zera da: eman, agian zerbait ematen duzula, baina jasotakoa askoz gehiago dela. Geroztik proiektuan jarraitu dut, gero eta inplikatuagoa. Bidaia errepikatzea ere tokatu zait eta edozeini gomendatzeko esperientzia iruditzen zait.

**E. Z.:** Jaialdia sekulakoa izan zen, ehun Haima inguru, (bakoitzean, auzoetako artisautza lanak zeuden) game-luak, Saharako abeslari hoberena, jendea furgoneta gainean kontzertua ikusten... Bizitzako esperientzia aberasgarrienetakoa izan da dudarik gabe.

Eta aberasgarria izateaz gain, oso esperientzia bitxia izan zen, bakarrik joan baintzen, eta inork ez zekien ez ze herritara joan behar nuen, ez ze familiarekin nengoen... Zestoako talde batekin elkartu nintzen azkenean eta Saharan, herriz herri ibili ginen baratzak, eskolak, ospitalak, emakumeen eskolak, azokak, dunak... ikusten eta eskutitzak etxez-etxe banatzen. Basamortuan tortila patata bat eta guzti egin genuen umeek kuriositatea baitzuten!

## 4.- Ze ikusi, ze sentitu zenuen han?

**J. C. I.:** Sentimendu asko pilatzen dira, baina nagusitzen dena beraien izaera da. Ezer eduki gabe ere, dena emateko prest daude, beti. Hemen bezelaxe, eh?!!!!

Ikusitakoa: Kanpamenduak ondo antolatuta dituzte, bai azpiegitura aldetik (hezkuntza, osasuna, ura, zaborrak,...) eta baita antolamendu soziala ere. Pentsa, errefuxiatu kanpamen-

dua izanda, ez dago analfabetorik, asistentzi medikoa denentzako eta dohain da, janari banaketari esker, famili guztiak dute bizitzeko minimoa,... Hori bai, bizi diren lekua benetan gogorra da (Hamada), basamortua. Eta kanpoko laguntzari esker bizi dira, beraiek ez dutelako apenas ezer ekoizten.

Osasun aldetik, azpiegitura badute, baina gabezi askorekin. Medikazioa askotan ez dago, medikurik azkeneko urteetan ere ez, espezialistak noizbehinka,... Patologi akutuetan heste eta arnas aparatuko gaitzak daude batez ere, eta umeetan nutrizio eta garapen orekaturako arazoak, gero eta gehiago arazo psikologikoak, ginekologi patologia,... Kronikoetan HTA, Diabetesa, hezurretako gaitzak,... eta gero beti espezialistak joaten direnerako selekzioa egiten ibili behar duzu, behar handia dago eta.

Eta ikusi dut herri duina; bere konbentzimenduetan tinko erresistitzen duena. 1975ean kanpamenduak antolatu zituztenean, egun, aste, batzuetarako izago zelakoan zeuden. 35 urte pasa ete gero, oraindik han daude, itxaropentsu, bere herrira noizbait itzuliko direla sinetsiz.



**E. Z.:** Harrigarria iruditu zitzaidan daukaten antolakuntza sistema egokia, (basura jasotzeko, eskolen antolakuntza, mikrokredituak...) eta denetan aipagarriena, beraien eskuzabaltasuna. Gaueko ordu txikitari iritsi arren, beraiek beti etxe atarian zain egoten ziren eta lehenengo momentutik, zuten guzti-guztia eskaintzen zuten.

## 5.- Ze ekarri duzu handik?

**J. C. I.:** Bihotza gainezka. Irrifar asko. Lagunak. Berrito bueltatzeko gogoia. Eta gauzak beste ikuspegi batetik begiratzeko ohitura. Hemengo bizimodu okzidental, kontsumista, honetara itzultzen zarenean, hausnarketarako ideia asko ekartzen dituzu handik.

**E. Z.:** Bertara joan arte, ezin da jakin. Sahararen edertasuna (izarrak, isiltasuna, paisaia eta arroparen koloreak, esperantza, jakituria, kultura...) eta gogortasuna. Berrito itzuliko naiz.

## 6.- Ze mezu zabalduko zenuke?

**J. C. I.:** Saharar herriarekin bat egin behar dugula. Ez bakarrik errefuxiatuentzako giza laguntza antolatuz (hau ere bai, noski, bizitzeko behar dute eta), baizik eta bere autodeterminazio eskubidea apoiatuz. Nazioarteko erakundeak errekonozitzen diote eskubide hau, baina Espainiak, Frantziak, Marokok, Estatu Batuek,... betatu egiten diote. Soluzioa erraza da: Bueltatu daitezela beraien lurraldera, eta Marokok amaitu dezala bere okupazio ilegala.

Beste aldetik, Sahara herria txikia bada ere (500.000 inguru mundu guztian), benetan maitagarriak dira. Ez galdu aukera laguntzeko. Bertara joanez, edo hemen antolatzen diren ekin-tzetan parte hartuz. Ordainetan jasoko duzun irrifarra eta esker ona ezin dira ezerekin konparatu. ■



## **Ieltxo kultur taldea sortu da eta urtarrilaren 30ean aurkeztuko dute Kultur Etxean**

Taldetxo bat elkartu da ideia berri ugarirekin gure herri honi bizitza pixka bat emateko, eta jada martxan jarri dute Ieltxo kultur talde berria. Urtarrilaren 30ean taldearen aurkezpena egingo dute Kultur Etxean, goizeko 11:30etan. Dena dela, aurreratu dute ekintza ezberdinak dituztela eskuartean eta urtarriletik aurrera, ekintza horiek martxan jartzeko asmoa dutela. Oharren bidez jakinaraziko dituzte ekintzak. Adi ibili!!!

## **Euskal Herriko Mus Txapelketako sailkapen saioa, urtarrilaren 23an**

Euskal Herriko Mus Txapelketa martxan da eta Igeldok parte hartuko du. Sailkapen saioa urtarrilaren 23an izango da, Kultur Etxean. Irabazten duen bikotea Gipuzkoako kanporaketara pasako da. Izena egunean bertan eman behar da edo Txapelaren egongo den zerrendan. Inskripzioa: 20 euro bikoteko.

## **Apaizarekin kontratua sinatu da lokala herriak erabiltzeko**

Eliz atzeko lokala herriak erabili ahal izateko kontratua sinatu da apaizarekin. Bertako gastuak Herri Kontseiluak hartuko ditu bere kargu. Lokalaren erabilpena herriko gazteei emango zaie, baina horren trukean herriari zerbait aportatzeko eskatuko zaie, hau da, dinamika bat izatea eta gauza ezberdinak antolatzea herriari

## **Seigarren txapela, Joxe Mari Olsagastik**

Azaroaren 21a egun handia izan zen Joxe Mari Olsagastirentzat. Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa jokatu zen Asteasun eta 51 urterekin, seigarren txapela jantzi zuen. Nahiz eta faborito nagusia Floren Nazabal izan, Olsagastik ustekabea eman zuen eta oraindik sasoi onean dela erakutsi zien guztiei.

35 minutu eta 31 segundo behar izan zituen lanak bukatzeko, eta Nazabalek, berriz, minutu bat eta 35 segundo gehiago. Gainera, azken zortzi urteetan txapeldunak lortu duen markarik onena izan zen Joxe Marik egin zuena; 51 urterekin marka! Anjel Arrospidek lortutakoa berdindu du Olsagastik seigarren txapela janztean, eta oraindik ez dago uzteko asmotan. Indarrean aurkitzen omen da eta beste 2 edo 3 urtetan jarraitzeko asmoa omen



**Olsagasti San Isidrotako saioan.**

du. Zenbait egunkaritan esan duenaren arabera, sekretuetako bat, egunero arroketa bainua hartzea omen da!

Bejondeizula Joxemai!!!!  
ZORIONAK Igeldotarron partez!!!!

begira. Lokaleko partaidetza guztientzat irekia izatea eskatuko da.

## **Kultur Etxeko giltza aldatu da**

Kultur Etxean lapurreta izan zenez, giltza aldatzea erabaki da eta bertan mugitzen den talde bakoitzari giltza bat eman zaio. Bestalde beheko solairua eta eskailerak pintatzeko asmoa dago eta garbiketa talde ezberdinen artean txandaka egiteko, taula bat jarriko da kanpoko kortxoan.

## **Urte berriarekin, Herri Kontseilua berritzea helburu**

Herri Kontseiluaren berritzea martxan jarri beharra dago. Urte berriarekin batera pausuak emango dira eta herri batzar bat egitea ere aurreikusten da gaia herrian zabaltzeko.

## **Piloteigiko seinalizazioa, Sindikatua eta Eskola Zaharra, airean diren gaiak**

Pilotegi bideko azken metroetan, etxe berriak dauden zatian, oraindik ez da inolako seinalizaziorik jarri nahiz eta aspaldian udaletxeari eskaera egin zitzaion. Gaia berriro hartu eta udaletxeari berriz eskaera egin beharko zaio.

Sindikatuari dagokionean, teilatua berritzeko aurrekontu bat eskatuko da. Bestalde, batzorde bat osatzeko ideia oraindik ez da martxan jarri.

Eskola Zaharraren inguruan udaletxearekin bilera bat egiteko eskaera uda aurretik egin zen arren, oraindik ez da inolako erantzunik jaso.

## GABONETAN EKINTZA UGARI, IGELDON



Udako ekintzetan parte hartu zutenek afari-merienda ederra egin zuten.

### Udako ekintzak bukatuta, Gabonei begira jarri da Kixmi

Kixmik udaran, 12 urtetik gorako herriko gaztetxoei zuzendutako ekintzen plangintza jarri zuen martxan. Guztira lau ekintza antolatu zituen: Adarrara mendi buelta, Biarritzera egun pasa, Luzaidera arroilen jeitsiera egitera eta Leitzarango bailarara bizikleta martxa. Ekintza hauetan, pentsatuta zegoen adineko gazteen erantzuna oso txiki izan dela ikusita, Kixmik printzipioz, ekintza gehiago ez egitea erabaki du. Dena dela, azpimarratu du ekintzetan parte hartu dutenen artean giro ederra izan dela nagusi eta oso pozik daudela parte hartu dutenen erantzunarekin. Hori horrela, afari-merienda ederra egin zuten joan den abenduaren 10ean, Din-Din elkartean.

Eta udako ekintzak alde batera utzita, Gabonei begira jarri da Kixmi. Urtero bezala, ekintza mordoa antolatu ditu: olentzerori ongi-etorria, eskea, merienda eta afaria.

#### Gabonetako egitaraua:

-ABENDUAK 24, OSTIRALA: Eskea. Arratsaldeko 14:30etan, Plazan. 6 urtetik beherako hurrek guraso edo tutore batekin joan behar dute. Eskearen amaieran Olentzerori ongi-etorria egingo zaio.

-ABENDUAK 31, OSTIRALA: Eskea. Arratsaldeko 14:30etan, Plazan. 6 urtetik beherako hurrek guraso edo tutore batekin joan behar dute.

-URTARRILAK 8, LARUNBATA: Merienda arratsaldeko 16:30etan, Din Din elkartean, eskean atera diren haur guztientzat.

Ondoren afaria, eskean atera diren gazte eta heldu guztientzat. Hitzordua: arratsaldeko 20:30etan, Plazan.

### Gabon Gauean, festa Kultur Etxean, gazteek antolatuta

Herriko hainbat gazte festa antolatu dute Gabon Gauean, hau da, abenduaren 24ko gauean. Gaueko 00:30etatik aurrera, musika eta girorik ez da faltako Kultur Etxean.

### Presoei dagozkien eskudideen aldeko manifestua sinatu dute herriko hainbat eragilek eta Gabonetarako bi ekintza antolatu dituzte

Euskal Preso Politikoei dagozkien eskubideen alde eta espainiar eta frantziar estatuek aplikatzen duten espetxe politika anker horrekin amaitzeko eskatuz, manifestua sinatu dute Igeldoko Herri Kontseiluak, Ezker Abertzaleak, Kixmi aisialdi taldeak eta Jai Batzordeak. Hala azaldu dute: "Espetxe politika anker honekin bukatzea ezinbesteko ikusten dugulako, aro berri bati arnasa emateko garaia delako, guztion artean, dagozkien eskubideen jabe izan daitezen lortuko dugu!".

Horrez gain, bi ekimen antolatu dituzte herrian eta herritarrei dei egiten diete ekimen horietan parte hartzeko. Alde batetik, abenduaren 31ean, Urte Zahar egunean, arratsaldeko 20:30etan Topa bat egingo da herriko plazan: *Aurten bai, guztion artean lortuko dugu!* lemarekin. Bestetik, urtarrilaren 8an, Etxerateg deituta Bilbon egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusa antolatu dute Igeldotik.

Orri Informatibo hau bukatzeko orduan, herriko lau eragile horiek ziren manifestuaren sinatzaileak eta ekimenen deitzaileak, baina herriko eragile gehiago ere badira batzekoak. ■



Igeldoko  
Herri  
Kontseilua

Laguntzailea:

